

PATAFISIKA

Salbuespenaren zientzia

Gaiak argitaletxea

Egilea: Txemi Valdecantos

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2012/04/29

Fisika (grekotik, φυσικός, Natura), inguratzen gaituenaren deskribapena zein analisia egiten dituen zientzia da. Zientzia esperimental da, naturan ematen diren fenomenoak dituelako aztergai eta horien behaketa lantzen duelako, baina baita teorikoa ere, aipatu ikuskapenetik eratorritako ondorioetatik lege orokorrak formulatzen dituelako. Hainbat kasuren ezagutza, beraz, fenomeno jakin batzuk hartzen dituzten joerak azaltzeko baliatzen du fisikak, eta joera horiek abiapuntu moduan hartuta, aurrerantzean izango omen direnen aurreikuspena egin dezake. Kasuistikak orokortasun bihurtzen ditu, eta orokortasuna, berriz, kasuistiken azalpena.

Esaera zaharrak dioenez baina, araua egiaztatzen duena salbuespena izaten omen da, eta horrek orokortasunetik at geratzea du bere izaeraren oinarri. Jakituria herrikoari begiratzea ez da gauza okerra zenbaitetan, nahiz eta batzuetan herrikoia izaten den jakituria baino. Guk kasu egingo diogu, oraingoan behintzat. Fisikak ezingo lituzke honenbestez naturan ematen diren fenomenoek kasu guztiak azaldu, ez eta aurreikusi ere. Salbuespenek bestelako esplikazio bat beharko lukete, bere zientzia propioa agian. XIX. mende bukaerako abangoardia artistiko eta literarioak eman zien zientzia berri hori: *Patafisika*.

Zer da 'Patafisika'?

Absurduaren antzerkiaren aitzindari izan zen Alfred Jarry (1873-1907) frantziar idazleak sortu zuen "Patafisika". Haren aburuz, "partikularraren zientzia da, nahiz eta orokorraren zientzia besterik ez dagoela esan ohi den". Hitza, "epi-meta-fisika"-ren kontrakzio arbitrario batetik eratorria da eta, hortaz, fisikaren ondoren dagoenaren inguruan aurki daitekeenaren zientzia litzateke. Hasierako apostrofea Jarryk berak jarri zion, hitz-joko errazak ekidin nahi omen zituelako. Hala ere, zientzia berriaren izena honelako *calembourek*in osatua dago era berean, adibidez "*pas ta physique*" (zure fisika ez dena).

Zein testuinguruan sortu zen?

Lehenengo aipamena 1893. urteko apirilaren 28an egin zuen dramaturgoak *L'Echo de Paris* egunkarian. Bertan Jarryren lumak sorturiko pertsonaiarik famatuena izango zen *Ubú* aurpegi-aniztunaren aurkezpena egin zuen, horrek bere burua Polonia eta Aragoiko errege ohi eta 'Patafisikan doktore moduan azaltzen zuelarik. Achras izeneko beste pertsonaia batekin zuen elkarrizketa batean zera zioen, "'Patafisika, beharrezkoa zenaren sentipen orokorra zegoelako asmatu dugun zientzia bat da". *Ubú*-ren abenturek garai hartako jendartearen kritika zorrotza egiten zuten, zentzu guztietan, eta zientziak noski bere lekua zuen Jarryren ironia jokoan. Esposizio unibertsal handizaleen urteak ziren, Eiffel dorrea, argindarra, makineria, abiadura, Darwin eta Jules Verne-renak. Mundua zientziak menderatzen zuen, berritasunak; erromantizismoaren garaia gainditzen hasia zen, arrazionalismo teknologiko berri baten alde. Bizitzaren teknifikazioak lege nagusien nolabaiteko diktadura zekarren, biztanleriaren eta haren jardueraren homogeneizazioa; eta abangoardista batek ezin zuen hori onartu. *Père Ubú*, Jarryk lizeoan izan zuen fisika irakasle gris baten karikatura zen, Monsieur Hébert-ena, baina hura ez bezala, aparta zen; salbuespenekoa alegia. *Ubú* munstro barregarri bat zen, groteskoa fisikoki, politikoki eta etikoki, baina bere izaera horren kontzientziarik ez zuen. Botere itsu eta bidegabearen marraskia zen.

Definizio eta formulazioak

Jarryren beste hainbat idatzietan 'Patafisika agertzen bada ere, idazlea hil eta urte batzuetara, 1911. urtean argitaratu zen *Faustroll Doktorearen ekintza eta esanak* liburuan zehazten ditu honek haren nondik norakoak. Urteetan zehar 'Patafisikaren formulazio bat taxutu nahian ibili ondoren, asmoa bertan behera utzia zuen; izan ere zientzia berriaren gehiegizko sintetizazio batek bere aniztasunarekiko atxikimendurekin bukatuko lukeela ikusi baitzuen. Salbuespenen zientzia zena ezin zen erduetan oinarritu, kasu bakoitza bere bakantasunean ulertzeko jaioa baitzen. 'Patafisika Natura bezain zabala zatekeen beraz, munduan aurki daitezkeen gauza, pertsona edota izateekin bat egiten baitu, haien neurrira egina dagoelako, eta mundu bizi horren nolabaiteko inbentarioa izanik, mugagabe eta bukaezina ere badelako. *Faustroll Doktorearen* bizipenetan egokitu zituen azkenean beharrezko definizio eta ñabardurak, Vernerren bidaietako zientzia dibulgazio herrikoia eta Odisearen klasikotasun kulturearen tarteko idazki batean. 'Patafisika ebazpen imaginarioen zientzia zen. Ez omen zen soilik teorikoa, zuzena eta itxia; 'Patafisika inkonszientea ere bazen, eta zorizkoa: ez zen formula hotzetan edo definizio estuetan adierazia izateko sortua, "'Patafisika bizia izateko zen!"

Zientziaren ikuspegi berri eta ihardukitzaile bat

Jakina da aipatu zabaltasun horrek 'Patafisikaren jarduera normala saihesten duela; behintzat ohizko zientzia baten modura ulertuko bagenu. Ez da ohiko zientzia bat, ordea. Gainerako zientziek luzatzen diguten unibertsoaren ikuspegia irauli nahi duen ekimena da. Hain zehatzak ei diren zientziek eskaintzen dizkiguten naturaren

azalpenak ikuspegi bakar batetik emanak baitira. Eta ikuspegi gehiago ere egon litezke. `Patafisiko batek, adibidez, gorputz baten zentro bateranzko erorketa grabitatorioa aztertu beharrean, hutsunearen periferietaranzko igoerari begiratuko lioke.

Jarryk zioenez, fisika erosotasun printzipio batetik sortzen da: “gizakien gehiengo batek, orokorrean, fenomeno jakin bat beste baten ondotik ikusi, eta dena beti horrela izango dela ondorioztatzen du”. Hori, baina, ez da beti zuzena. Kasu gehienetan baino ez da zuzena, behinik behin. Gutxiengoek, ostera, zientzien ondorioak deseroso bilakatzen dituzte, haien fidagarritasun eta nagusitasunaren berme den zehaztasuna ukatzen baitiete.

Jarrera satirikoaren garrantzi paregabea

Alfred Jarryk, gerora Raymond Rousell, Guillaume Apollinaire eta abarrek egin zuten bezala, umorea eta absurdoa erabili zituen bere burua gehiegizko seriotasunez hartzen zuen zientziari zaplasteko bat emateko, norabide bakarreko pentsamoldeei azken finean; absolutuak diren egiak gezur direla esateko. Botereak, bere edonolako formetan, absolutu horiek erabili ohi dituelako bizimolde “zuzenen” inposizioak aurrera eramanez eta zilegitzeko. Zuzentasun horien irudikapena muturreraino eramanez, absurdora iristeraino, bere koherentzia bera zalantzan geratzen da. Dadá, futurista edo surrealisten mugimendu estetiko zalapartatsuen aurrekari eta oinarri izan ziren Jarryren jarduerak. Abangoardista horien ekimenak soilik probokazio edo anekdota barregarri moduan ulertzea akats handia bezain arrunta da, beti daramatelako bere baitan jendartearen arazoekiko adierazpen sakon eta eraginkorra. Ironia eta umorea mundua mundu denetik edozein botere motari erantzuna emateko tresnarik garrantzitsuena izan da, baita zientzia ahalguztidunaren botere eztabaiaezinari ere. Umorea gauza serioa delako. Agian zientzia bera baino serioagoa.

ZOOM IN

1948ko maiatzak 11n Alfred Jarryren jarraitzaileek *Collège de 'Pataphysique* sortu zuten, haren obra eta oroimenaren gorazarrea egiteko. Zientzien akademia eta elkarte profesionalen karikatura zen noski. Berehala afiliatu zitzaizkion abangoardia artistiko eta literarioko izen nagusiak; besteak beste, Marcel Duchamp, Man Ray, Jean Dubuffet, Boris Vian, Raymond Queneau, Umberto Eco, Fernando Arrabal edo Groucho eta Harpo Marx. Egutegi 'patafisikoa ezarri zuten (edozein iraultzatan egin ohi zen bezala) bai eta santu izendegi *ad hoc* bat sortu ere. Berezko sinbologia oso bat eratu zuten unibertso 'patafisikoaren inguruan.